

astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

9.zk 2015 • 5e



PLATERO Y TU
CORREOS

ANBOTOKO DAMA GOIANDERE ALA DEABRU?

 Anuntzi Arana

 Txelu Angoitia / Jose Mari Uriarte

Euskal mitologiako izaki ospetsuena da gaur egun Anbotoko Dama. Oso ikertua izan da, ikusbide desberdinez, eta eratzikitzen zaizkion jite eta funtzioak ere desberdinak dira. Tradizioan Dama edo Señora zen haren deitura zabalduena. Baina Durango eta Murumendi inguruan ematen dioten Mari izena nagusitu da aspaldi honetan eta, ondotik, 'Mari'ren bat erraz topatzen baita toponimo eta goitzenetan, haren presentzia nonahi sumatu izan da. 'Andere' deituko dut eta Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroako mendebaldean agertzen den pertsonaia tipora mugatuko naiz, jakinez harekin antza zerbait duten izaki mitikoak badirela beste eskualdeetan.



I MENDIRIK MENDI

Emakume edertzat irudikatzen da Anderea, ile horia eta soineko dotore jantzia. Gauaz ikusten zen komunzki, su eta gar zerua zeharkatzen, batzuetan tximisten artean, mendi batetik bestera pasatzen zenean. Zaldibian zioten Murumenditik Aizkorrira eta handik Aralarrera aldatzen zela. Arrazolan Gorostizari esan zioten Anbototik Udalatxera ibiltzen zela, gero Udalatxetik Oizera eta Oizetik Anbotora. Oñatin, Anbototik Aloñara joaten zela; Arrasaten, Udalatxera; Orozkon Gorbeira; Igorren, Atxalira; Baranbion eta Zeberion, Urduñako Atxera... Bigarren mendi horietako egoitzan zazpi urte pasa eta, atzera itzultzen zen Anbotokora, hantxe beste zazpi urtez egoteko. Eta gero berriz haste.



Anderea egoten bazen eskualdean aro txarra egiten ei zuen, eta uztak suntsitzen zituzten ekaitz eta kazkabarra ekartzea leporatzen zitzaion. Hori galarazteko, herri batzuetako apezak haren haitzuloa bedeinkatzera joaten omen ziren maiatzaren 3an, Santa Gurutz egunean: bedeinkazioak barruan harrapatzen bazuen, “zerrailu” magiko horrengatik ezin zen atera eta bakea zuten urte batez; kanpoan harrapatzen bazuen, ordea, alderantziz

zen: sartu ezinez, jo eta su ibiltzen zen gelditu gabe. Hala gertatu zen Urduñan, Etxebarria Aiestari Zeberion kontatu ziotenez: Señorea “pekauten pekatuak” kondenatua zen eta Anbototik Urduñako Atxera pasatzen zen. “Ez dagien urten” eta “mundutik ibili ez daiten”, Urkiolako abadea igotzen zen bedeinkazioa botatzera zuloan, eta horrela urte guztian egoten zen barruan. Eta “akordadu jakon Urduñako abadeari joaten hango atxera eta bota egin behar eutsela bendiziñoa”. Baina Señorea kanpoan egon zen orduan eta “erretan egon zan kanpoak eta deabrututen bazterrak guztiak”. Eta halan ibiliko zen urte guztia hegazka Euskadiren gainetik eta bazter guztietatik, “kanpoak erretan eta deabrututen”...

Lurraren joritasuna baldintzatzen du Andereak, beraz, aroan eraginez. Eta haitzuloetan egoitza duenez, lurraren pertsonifikazioa dela ondorioztatu da, egoitza horiek goi mendikoak diren arren. Greziako Zeus ekaitzegilea ere holako leizeetan egon zen, eta hargatik zeruko jainkotzat daukagu, inork ez du “aitalur” deitzen. Anbotoko Andeari ere ez zaio “amalu” esaten istorio zaharretan, hitzak berak aski berria dirudi.

Ekaitzari doakion haserre erakusten du Andereak. Bere hartzuloan orrazten dagoenean, inor ezin urreratu izaten dela beragana dio Azkuek. Gorbeira txirpia biltzera joan ziren langile zeberioar batzuen aurrean “ ‘Ni bakarriik!’ pasatu ei zen gauez”. Orozkon kontatu zidaten, Urkiolan entzunda, Anbotoko haizpean sartzen ikustera joaten ziren jendeei haizez erasotzen zitzaie eta biluzik bidaltzen, non ez zituen amiltzen.



II JATORRIA

Andrea nondik datorren salatzen dute kondaira anitzek eta, zenbaitetan, kontrajarriek. Gaur egunean bi mota aipatzen dira bereziki eta, baten arabera, emazte ezkondua zen. “Beasaingo Murugueneko semeak esaten omen zuen, inpernuko deabruarena bazan ere, neska ederra behar zuela. Behin, artzain zebilela, neska eder bat ikusi omen zuen, eserita ileak orrazten. Berarekin hizketa hasi eta elkarrekin ezkontzeko lana hartu. Ezkondu omen ziren eta baita zazpi ume izan ere. Andra hori ez omen zen elizara joaten. Gizonak behin gurdian hartu zuen sokaz lotuta. Baina eliza-aurrera iritsi zirenean, andre hori su-ta-gar jarri eta sokak erreta airatu omen zen eta Muru aldera joan”.



Beste kondaira multzo batean, neskatila ederra zen, beti orrazten ari zena. Amak haserrez esan zion behin: “Tximistak eramango al hau!”, edo “Deabruak eraman baheza!” Berehala airean joan zen eta airean ibiltzen zela gero, inon ezin geldituz. Zeberioko bertsio batean amaren ankerra nabarmetzen da. “Orraztuten zan alabari bota eutsan: ‘Hik joan beharko dona kueba batera eta hantxe heure bizimodua eroan!’ Eta Anbotoko kueban zazpi urte pasata ama joan jakon, ea zelan bizi zan. Eta, ba, muskerrak parrillaren ganean erre eta jaten; ‘ogia bere baten batzuek eroaten eutsiela...’ Eta: ‘Hemen beti ez zagoz ondo’, ei eragoion ama horrek, eta berriro bota maldiziñoa beste kuebaren batera –hil daiten gura euan. Joan ei zan Gorbeira eta han bere gero pastoreak laguntan ei eutsien, gaztaia bere eroaten eutsien, putxea (gaztanbera), gatzura. Eta han beste zazpi urte. Baia urte txarrak etorten ei ziran. Eta urte txarrak dirala eta barriro beste maldiziño bategaz bota ei euan Anbotora. Eta gero, holan dabilela esaten euden, urte askoan holan zala. Orain ez dakit bizi bada!”

Durangaldeko batean, amak deabruari saldu zion alaba. Andikonetarrak eta Sarritarrak beti haserre ibiltzen ziren, Oiz menditiko errekatxo bateko ura elkarri kentzen. Andikonetarrak ura kendu zuten batean, demonioa Sarri-Beheitiko andreari agertu zitzaion eta galdetu zion ea zer emango zioten ura beti Sarrira bidaltzeagatik; eta alaba eskatu zion andre horri. Andreak esan zion Mariburrikaren zuloko landara bidaliko zuela alaba eta orduan harrapatuko. Alabatxoa behiak ekartzen joan zen eta “txuri, txuri” deidatzen zuzenean, Mariburrikak zulotik urten eta harrapatu zuen neska eta bere zulora eroan zuen.

III HOBENA, KRIMENA, KONDNA

Abadiñoko kondaira ezagun batean, krimen baten ondorioz kondenatu zen Anderea. Hona Gorostizak bildu duena. "Muntxarazen erregea egoala, seme-alaba bi ei eukezan hango erregeak. Semearentzat ei zan erreñu guztia. Eta ez ei egoan diru asko arrebearentzat. Egun baten arrebeak nebea eroan ei eban beragaz Anbotora eta han bota ei eban (horregaitik dau izena Anboto). Gero Andastora joan ei zan eta han estu aurkitu ei zan (horregaitik Andasto)."

Barandiaranen bertsio luzeago batean, atxetik behera neba bota eta hurrengo gauean, Mariurrika ezkaratzean egoala, ximiniatik jatzi ziren ximelgorriak. Mariurrika

galdu zen eta geroztik hegazeen dabil Anbototik Oizera sugarren figureaz. Anboton deuko zulo bat - Marien kobia- eta Sarrimendin beste bat.

Muntxarazgo dorreari buruz Iturriak XVIII. mendean aipatu legenda bat dakar Azkuek. Ez da hartan krimenik azaltzen baina bai prakagorriak: mazmarro-etxe bat da Muntxaraz, eta hango jaunagaz Nafarroako errege-alaba Andra Urraka ezkondu zen XII. mendean -Iturriak dakar ezkontza horren berri. Gizona hil eta, alarguna ihesi joan zen gau baten, inork jakin gabe. Laster herrian zabaldu zen Andra Urraka Anbotoko hartzulora bizitzera joan zela.



Kobazuloaren lehioa

Kobazuloaren sarrera

IV DEABRUAK

Muntzarazgo ximelgorriak prakagorriak edo familiariak zirela ulertzen da. Orozkon ere diote haiek zutela eramán Anderea izango zen emakumea. Familiariak dituená ezin ei da hil haietaz gabetu arte, hau da, beste norbaiti eman eta hark onartu arte, eta hartzailea airean eroaten ei dute. Neskazahar batek, hil beharrean eta hilezinean paratu zenean, bere neskameari eman zizkion eta, hark onartu bezain pronto, airean joan ei zen eta beti han ibiltzera kondenatu zen: Anbotoko Anderea da.

Prakagorriak deabru gaiztoak dira –nahiz pasadizo barregarriak protagonizatzen dituzten. Intsektu itxura dute, euliarena gehienetan. Antzinatean eta kristau tradizioan euliak deabru ei lotuak izan dira –Belzebud izenak “eulien jainkoa” esan nahi du–, horregatik Luther-

ek ezin zituen haien gorotzak jasan bere testuetan. Legenda Aurea XIII. mendeko santoralak, errogatiba egunetako irakurgaián, familiariak bezala airean hegaka irudikatzen ditu deabru ekaitzegileak.

Deabruari saldua, deabruak edo prakagorriek eramana, “bazterrak deabrututen” ibiltzen, deabruzko izaera egozten zaio Andereari. Txerrenekin asimilatua izan delako egin ote zen ekaitzegile? Ala ekaitzegile zelako deabru tankera hartu zuen? Sorginei ere egozten zitzaie tenpestak sortzea. Eta Europan badira eguraldian eragiten duten dibinitate femininoak, hala nola Grimm anaien ipuineko Frau Holle: bere edredoia astintzen duenean lumatxak ateratzen ditu eta elurra egiten munduan.





V MELUSINA



🌀 ??????????????????????????????

Pedro de Barcellos-ek, XIV. mendeko Livro dos Linhagens-en, Bizkaiko etxearen naturaz-gaindiko etorkia azaldu zuen. Diego Lopez de Harok, ehizan zebilela, emakume bat topo egin zuen eta ezkontzeko eskatu zion; emakumeak baldintza ezarri zion ez zuela Aitarena egingo haren aurrean, eta hori onartuta ezkondu ziren. Andre hura oso ederra zen, salbu ahuntz zango bat bazuela. Egun batez, Diego zinatu zen emaztearen aurrean, eta hark berehala alaba hartu, leihotik jauzi egin eta mendi aldera jo zuen betirako.

Istorio tipo hau oso zabaldua zen Frantzian, XII. mendetik segurik. Tilbury-ko Gervasioren *Otia Imperialia* liburuko “De domina castri de Esperver” kondairan, senarrak eta sehiek eraman zuten elizara andrea, Beasaingoaren antzera.



Bertsio ezagunena Melusinarene eleberria da, Jean D’Arras-ek idatzia XIV. mendean. Lopez de Harorena bezalakoa da, salbu ezkontzeko baldintza da senarrak ez zuela emaztea inoiz larunbatean ikusten saiaturiko. Gizonak debekua hautsi eta, Melusina suge hegalduna bilakatu zen eta leihotik joan zen. Ez zuten gehiago ikusi, nahiz eta gauzez etortzen zen bere seme txikiak artatzera.

Melusinak gazteluak, elizak, dolmenak eraiki ei zituen –hemengo istorioetako lamina zenbaiten moduan-, batzuetan deabru hargin tropa bat duela bere zerbitzuko. Gau bakarrean bururatzeko dituen lanak, baina harri baten faltan gelditzen dira –hemengo laminen edo deabruen zubiak bezala. Holako deabru harginek antza dute familiariekin.

🌀 ??????????????????????????????

VI ZELTOMANIA

Anbotoko Anderearen eta Melusinaren kondairek duten ahaidetasuna dela eta, lehenaren jatorri hispano-zelta (zeltiberoa) aldarrikatu da eta, bide batez, euskalduntze berantiarraren ideari lotu zaio, hau da, Euskal Herriko mendebaldeko jendeak zeltiberoak izan diren teoriari. Zeltomania heldu da gurera, noiz eta aditu batzuk zelta izenaren eta izanaren neurria murrizten hasi direnean.

Nork zer daki erligio zeltiberikoaz? “Zelta” deitu ohi den mitologia Irlanda, Gales eta Bretainiako literaturaren bidez ezaguna da nagusiki. Harekin lotua den Erdi Aroko “Matière de Bretagne”n aurkitzen da lamia eta gizonaren elkartzea, batez ere *lai* izenaz ezagutzen diren zenbait kondairetan (*Graelent*, *Guingamor*, Marie de France-ren *Lanval*). Aarne eta Thompson-en ipuin sailkapenean aipatzen da gaia, 400-449 tipoetako

batzuetan. Bizkaiko koplak zahar batean ere igartzen da, Aita San Miguel Jurrietakoan: “Perretxikotan nenbilenean / Mendiolako basoan / dama gazte bat bilatu neban / elorri baten onduan. // Gaztea nintzen, zorua nintzen / jarri nintzakon albuana / amantaltxua zabaldu eta / altzuan hartu ninduan”.

Tabu hautsi ondoan ezkontide edo maitalearen galtzeari dagokionez, Eros eta Psyche mito helenikoa dugu, Apuleoren *Metamorfosiak* (*Urrezko astoa*) liburuan azaldua.

Horiek gabe ere, nork errebindikatuko du mitologia arras autoktonoa, auzo kulturen eraginik gabea? Paleolitoko sukariak urrundik ekartzen zirelarik, nolaz ez dira garraiatuko pisurik ez duten mitoak?






VII BERAZ...

Anbotoko Anderearen tipoko izaki mitikoa noiztik den hemen jakitea ezinezkoa zaigu eta haren istorioa osatzen duten motiboak beste lekuetan ere aurkitzen dira. Horrek ez dio nortasun propioa kentzen. Gero, Mariri dimentsio itzela eman zaio eta asmo kolektibo baten ugazabandre hautatu da (edozein erligiotan gertatzen dena, bestalde), haren manupeko matriarkalismoa aldarrikatzeko. Amalur izendatu eta, hasian hasi, leku bat esleitu zaio kosmogonian: beren amarengana joaten diren eguzkiaren eta ilargiaren ama bihurtu da, astro horien sortzailea, ez gutxiago...

Hainbesterainokoa izan gabe ere, Anderea ez da deabru zirtzil madarikatu bat. Zeruan eta airean hegan ibiltzen den mendiko eta ekaitzeko dibinitate bat da eta, lurraren emankortasuna gobernatuz, bizitza baldintzatzen du; aberats urredua da eta haren kontra birau bota zuen zeberioarrari errota geldiarazi zion, bakeske joan zitaion arte... Urte txarrak ekartzen zituen arren, jatekoa eskaintzen zioten Gorbeiko artzainek, errukiz, edo menturaz

dibinitateari egiten zaion emaitza gisa. Oraindio XX. mendean Ander Manterolak entzun zuen behin nola “Anbotoko sorgina” esan zuen neska bati bere amak erantzun zion “Anbotokoa ez dun sorgina, Dama dun!” Errespetuz begiratu zaio tradizioan, geroago izango zuen ospea urrun zenean ere.

Kontua da jainkoen eta deabruen arteko mugak ez direla baitezpada garbiak, haien funtzioak trukagarriak izan daitezkeela testuinguru zenbaitetan; are gehiago, erligio ordezkapenen ondorioz, jainko garaiuak demonio bilakarazten direnean, edo alderantziz. Funtsean, “Anbotoko Dama, deabru ala goiandere?” galdegin barik, egokiagoa izango litzateke pentsatzea: “Anbotoko Dama, deabru edo goiandere”. 

Anuntzi Arana

Antropologoa



????????????????????